


**BIZITEGI ERAIKINA**  
C MAILA

**ERREGINA ERREGENEA 7**



Egilea eta data: Manuel Urcola eta Eceiza, 1885

**Deskribapena**

Urcola eta Eceiza obra maisuek 1885ean eraikia. Eraikina 1982an hustu eta birgaitu zuten. Garai hartako izkinako eraikinen ohiko eredua da (birgaitze lanetan, eraikinaren forma eta ezaugarri nagusiak mantendu baitira), bai alakako begiratoki independenteei dagokienez, bai fatxadaren konposizioari dagokionez ere. Mantsardaren jatorrizko profilaren erreferentzia gisa ere geratzen da.

**Babes erregimena**

1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berriazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: arotzeriaren jatorrizko formatua eta harlandua, eta goi oinetako ate tolesgarriak. Mantsardaren jatorrizko elementuak.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: mantsarda mantenduko da; jasodurak ez dira onartzen.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.